

# **IUAN DE BERIAIN ETA PERPAUS KONPOSATUA**

**Francisco Ondarra**

*Uterga-ko* abade *Iuan de Beriain-ek* bi liburu idatzi zituen. Horietako lehenbizikoak *Tratado de cómo se ha de oyr missa* du izena, eta 1621. urtean izan zen argitaratua; bigarrena, 1626. urtean argitaratua, *Doctrina Christiana en romance y bascuence* da.

Liburu hauek ez daude *Uterga-ko* euskaraz idatziak, berak *Tratado* delakoan dioen bezala, baizik eta *Iruñeko* euskaraz daude. Honela dio: «Escriuo en Romance, y bascuence lenguages deste Obispado, y aunque en diferentes parte del ay en algunas cosas, diuersos modos de hablar, yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça desde Reyno, y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes» (*VIIIat.*).

Beraz, gure lan honetan ematen duguna, *Iruñeko* euskarari dagokiona da. Lan hau egiteko, *Tratado* izeneko liburua erabili dugu, bestea ikusteko aukerarik izan ez dugularik. Arrobi ugaria izan dugula uste dugu, perpaus konposatua erruz bait darabil egileak, asi lehenengo orrialdetik eta azkenekoraino. Hemendik ateratzen dugu, beraren aurretik euskalki hau landua izan zela, idazteko modu segurua eta zalantzetan ez dabilena ikusten bait dugu liburuan zehar. Non dago literatura izkutu hori? Zenbait bertso eta *Sancho de Elsoren Doctrina-ren* berri, besterik ez dugu *Beriain-en* aurretik.

Lan honetan perpaus konposatua nola tajutzen duen aurkezten dugu, zer partikula, aurrizki eta atzizki ageri diren perpaus menpekoa eta nagusia elkarrekin lotzeko. Perpaus koordinatuak eta elkarren ondoan jarriak ere ikutzen ditugu pixkat. Ipintzen ditugun adibideak, eredu jatorrak izan daitezen saiatzeko gara.

Zenbaki baten atzetik dagoen *s.* -a latinezko ‘sequens’ da, *ss.* ‘sequentes’ eta *at.* ‘atzetik’.

## LEHENENGO ZATIA

### Perpauk konposatuak

Gramatiketan egin ohi den banaketa begien aurrean daukagula, beren esanaiaren arabera ematen ditugu perpauak, kontuan hartzen ditugula ere beroiek tajutzeko erabiltzen diren aurrizkiak, atzizkiak etab.

Liburuan barrena, perpau konposatua da jaun eta jabe; perpau bakuna urri ageri delarik.

### I. Perpauk lokarririk gabe

Erkadan ipinitako perpauak, beren artean lokarririk ageri ez dela, ez dira ugari. Hona hemen adibide bat:

«Alauer vrricari *çaytes*, federic eztutenes, eta hereges, eman - *drazoteçu* arguitasuna, ezagun dizaten gure fedesco misterioac», 76at., 2, 1ss.

### II. Perpauk koordinatuak

Perpau *kopulatiboak* eta *adbertsatiboak* erruz aurkitzen dira. Perpau *banatzaileak* ez dira gutxi, eta *disjunktiboak* ere ez. Banan banan ematen ditugu mota bakoitzeko adibideak.

A. *Perpau kopulatiboak*: Beren juntagailua *eta* da.

«Gauça ohec gucioc da ongui consideradiçagun, *eta* ohasas oroytgaytecn *eta* emandrazquiogun Iaunoni graciac, *eta* ceruiçadeçagun» 11at., 6, 1ss.:

«adoracen, reuerenciacen *eta* alabacen dutela» 9at., 1, 12s.;

«alauadezagun *eta* ceruiçatu» 10, 1, 3s.

B. *Perpau adbertsatiboak*: Aurkitu ditugun partikulak *aytçetic*, *baya*, *bayeta*, *baycic*, *bercela* (?) eta *ezpada* dira; eta *alabaya* ere sar daitekeela uste dugu.

a) *aytçetic*. «Milagro hau diot ezta chiquiago..., *aytçetic* da andiago» 8at., 15.

b) *baya*. «ceren ni ezpanoaye neure Ayta gana, ezta etorrico Espiritu sandua çuen gana, *baya* ni banoaye, nic igorrico drauçuet» 71at., 2, 14.

c) *bayeta*. «eta ez solamente agradacençayo (Ayta eternoari) sacrificioau gueyago eces berce gauza ofrecialdaquioquen guciac *bayeta* ecin agradatuzayo beynere...» 17at., 17.

d) *baycic*. «alaco maneras ece ytzac consagraciocoac erranes guero, ezpayta an oguiric, eta ardoric batere *baycic* ayen lecuan Iesu Christoren gorpuça, eta odola» 7at., 24;

«ezpalidi atra berce prouechuric *baycic* çuri contentu ematea» 70at., 1, 7s.

e) *bercela* (?). «beardu jaquin cerden (Meza), eta nola bearduen ençun, *bercela* eztu ençunen ongui» 7, 1, 1.

f) *ezpadu*. «eta ala aren (Iesu Christoren) partetic ezte faltaric, çretic *ezpada*» 108, 12. *Beriain-ek* honela itzultzen du: ‘y assi de su parte no aura falta, si de ti no la huuiere’ 101, 1, 4s. Beraz, ematen du baldintzazko esaldia dela.

g) *alabaya*. «hau honla, ytzes erran, eta *alabaya* dago determinaturic Iaun onec vere mandamentuetan manaturic daucanaren contra eguitera» 92, 2, 4. Itzultzen duela ‘y con dezir esto con la boca esta determinado de hazer lo contrario’ 83at., 2, 3.

C. *Perpau* *disjunktiboak*: Hemengo juntagailua *edo* da.

«*bercela* eztuela eguinen, *edo* eguinenduela gayzqui» 6at., 6;

«Sacerdoteac... erratendu Epistola, bayta predicubat ceyn predicacen baytu san Pedroc, *edo* san Pabloc, *edo* san Iuanec» 45, 2, 3s.

D. *Perpau* *banatzaileak*: Aurkitu ditugun juntagailuak eta, *ala nola*, *bat berce eta ez eta ez* dira.

a) *ala nola*. «ceñen baytatic, yturri batetic bezala baytatoz guciac *ala* Ayngueruey *nola* guiçoney» 70at., 2, 8.

b) *bat...berce*. «gueyago erdestendute Meza ongui ençutendutenean, *batas* ceren verac Mezan ofrecicenbaytu sacrificioa, *berceas* Meza erratenduenac ofrecicen baytu aren gatic» 106at., 3, 12s.

c) *ez...eta ez*. «Iaunau verau vere personas yori fiatu bague negocio hau ez Aynguiruey, *eta ez* berceri, dago Mezan» 9at., 2, 8;

«Ezta yçandu munduan *eta* ezta genderic ayn barbaroric, eta adimentu gutitacoric, *ezpaytute* ofrecicen sacrificioric» 16at., 3, 1;

«eta ala *ez* Erreguia andreac, *eta ez* guizon onec çutela culparic» 111at., 1, 21.

### III. *Perpau* *menpekoak*

Erruz eta ugari ageri dira *perpau* *menpekoak*, asi lehenbiziko orrialdetik eta azkeneko orrialderaino.

A. *Perpau* *subjektiboak*: Hauek sortzeko, erabiltzen ditu: a) *aditz izena*, b) *ece* juntagailua, c) *-la* atzizkia, d) *subjunktiboa*, eta e) *zeharkako galdera*.

a) *aditz izena*. «cembat agradacen çayon... Meza *ençutea*» 16, 2, 3;

«*Sacrificio ofrecicea*, da Iaungoycoari ceimbayt harc criaturicaco gauz *ofrecicea*» 16at., 2, 1.

b) *ece*. «Gauza ciertoa da *ece* gauzabat eguinen badu personabatec ongui bearduela jaquin cer gauza den» 6at., 1.

c) *-la*. «baycirudien munduac ondatu bearçuela» 112, 8s.

d) *subjunktiboa*. «da ongui consideradiçagun» 11at., 6, 1s.; «conueni da, ni *noayen* neure Aytaren gana» 71at., 2, 10.

e) *zeharkako galdera*. «Emendic atracenda *nola* aldaquienac (sic *-qui-*), beartluquela egunoros Meza ençun» 110, 1, 5s.

B. *Perpau* *objektiboak*: Erabiltzen ditu: a) *aditz izena*, b) *erlatibozko perpau*sak, c) *ece*, d) *-la*, e) *partizipioa*, f) *subjunktiboa*, g) *-ten* atzizkia, h) *zeharkako galdera*.

a) *aditz izena*. «eta hau da Meza erran naybaytu *igorcea*» 18, 12.

b) *erlatibozko perpau*sak. «culplicendigula vere Elizari prometatuçue-na» 10, 2, 13s.

c) *ece*. «nondic dator erratera S. Ioan Chrisostomo, *ece* Mezan daucagula» 8, 1, 5;

«errandeçaquegu *ece* Virginia Mariari, eta berce sanduey ecin emandra-coquegutela ambat honra» 18at., 2, 17.

d) *-fa*. «consideraçaque çuequi gueldicen naycela» 10, 2, 14s.

e) *partizipioa*. «baya *nola* hau ezpayta conueni, eta bear naydu egunoros *egu*in representaciohau» 12, 9.

f) *subjunktiboa*. «onec adicera ematendraugu veztidura churia, ceñes Herodesec manatu bayçuen *vezticeçaten*» 10at., 3, 5.

g) *-ten*. «assicendenean *erraten*» 69at., 2, 2: ‘á dezir’ 61at., 2, 2s.

h) *zeharkako galderak*. Galdera hauek egiteko, hemen ipintzen ditugun hitzak eta atzizkia erabiltzen dira: 1) *ea*, 2) *-n*, 3) *noyz*, 4) *nola*, 5) *nor*, 6) *cemat*, eta 7) *cer*.

1) *ea*. «jaquindeçadan, *ea* eguinduçuen» 111at., 1, 4.

2) *-n*. «considera bezate au erratendutén sines, ala ez» 68at., 19.

3) *noyz*. «Baya *nola* Meza ençutenduenac ezpaytaqui *noyz* Sacerdoteac acabacen dituen consagracioco ytzac» 87at., 6.

4) *nola*. «oroycen garadela *nola* datorren aldarera» 68at., 10;

«Cer intenciorequi, eta *nola* bearden Mezaco sacrificioa ofratu guero erranenda» 19at., 1, 6.

5) *nor*. «adiuinaçac *norc* ematen drauan» 10at., 2, 10.

6) *cemat*. «Considerazaçu Erreguebat datorrenean ciudadebatera, *cemat* gende atracen den aren ycustera» 69, 1, 2.

7) *cer*. «Lembicico capituloa ceñetan adicera ematen bayta *cerden* Meza» 6at, titulu. Itzultzen du ‘Capitulo I. en que se explica *que* sea Missa’ 1, titulu.

C. *Perpau* *erlatiboak*: Bi modutara sortzen dira, lehenbizikoa, guk a) izendatzen duguna, *-n* atzizkiaren bidez; eta bigarrena berriz, gure lan honetan b) deitzen duguna, zenbait aurrizki-atzizki eta hitzen bidez: 1) *bay-*, 2) *-icaco*, 3) *non*, *bay-*, 4) *nondic*, 5) *nora* *nay*, 6) *ceyn*, 7) *ceyn bay-*, 8) *cer*, eta 9) *cerengatic*.

Gehien ageri dena, *-n* da; bainan asko ageri dira ere *ceyn bay-* eta *bay-*; oso gutxi *ceyn*, baldin ez badago *bay-* bere ondoan.

Aditzari ez zaio *-n* atzizkia eransten b) saileko ereduetan; salbuespen gisa edo, *nondic* hitzarekin aurkitu dugularik, behin. *Non* beti *bay-rekin* batean aurkitu dugu. *Ceyn* bakarrik, eta *bay-rekin* batean ia beti. *Nondic*, bi aldiz bakarrik, eta behin *bay-rekin*.

Erlatiboa osatzeko, *-n* erlatibozko atzizkia erabiltzen denean, «erreferente» bezala dagoen hitza, perpaus erlatiboaren aurretik edo atzetik joan diateke.

Eratibozko perpaus murriztaileak sortzeko, *-n* erabiltzen da ia beti; baina esplikatzaileak egiteko ere balio du atzizki honek. Uste dugunez, perpaus murriztaileak tajutzeko, balio dute *ceyn* eta *cer-ek* ere. Aipatu ditugun fenomenu hauek guziak ematen ditugu orain ipintzen ditugun adibideetan.

- a) *-n*. «meregitu cisquigun *ondasun guciac*» 18, 23;  
 «Mezan ofrecicenden *sacrificioa*» 19, 1, 5s.;  
 «guciey eguinendizquitezun... *mercheden gatic*» 71, 1, 7.;  
 «conuenicayzquigun *gauza guciac*» 17at., 6s. *Baina*  
 «*berce gauza ofrecialdaquioquen guciac*» 17at., 16s.

b) sailekoen adibideak ematen ditugu hemen.

1) *bay-*. «hau da Meza erran *naybaytu ygorcea*» 18, 12. Itzultzen du ‘y esto es propriamente: *Missa que quiere dezir*, embiar’ 14at., 10s.

2) *-icaco*. «profetec, eta Erreguec... desseaturicaco ytcac, eta ezpayciztuzten ençun» 56at., 1, 12s. Itzultzen du ‘las cosas que... *dessearon*... oyr y no las oyeron’ 49at., 1, 4s.

3) *non bay-*. (Adibideak *Lekuzko perpausak* atalean).

4) *nondic*. (Adibideak *Ondoriozko perpausak* atalean).

5) *nora nay*. «bapedrac duela Aynguerubat beguiracenduena, eta gu acompaņacen, gaytuena *nora nay* bagoas hara» 31, 2, 8. Itzultzen du que cada vno de nosotros tiene un Angel de guarda que nos... acompaņa a donde *quiera que vayamos*’ 24, 2, 7. Behin bakarrik aurkitu dugu.

6) *ceyn*. «*ceriec*... injuriacen çutela» 9, 22;

«*ceņes*... estalcencisquiotela» 10at., 2, 5.

*Ik.* ere 10at., 2, 5ss.; 55, 2, 2s.

7) *ceyn bay-*. «Auda ene semea onericia *ceyn* agradacen baycat» 17at., 23.

*Ceyn bay* eta *-n* elkarren ondoan perpaus koordinatuetan:

«laungoycoaren Semea guizon *eguincena*, *ceyn* concebitu yçandubaytçen..., eta *jayocena*..., eta circuncidatu *çutena*, eta... eramo *çutena*, eta... artu *yçanduçuena*,... *egonducena*, *ceyn* ibildu *baycen*» 7, 2, 7ss.

*Ceyn bay-* perpaus murriztaileetan:

«onec (Albac) adicera ematendraugu veztidura churia, *ceņes* Herodesec

manatu *bayçuen* veztimeçaten» 10at.,3,4s. Erdaraz ‘La Alba significa la vestidura blanca que le mandó vestir Herodes’ 4at.,3,1s.

*Ik.* ere 11,2,1; 4,4; 11at.,2,1.

8) *cer.* «memoriara ecarcendigula, *cer* Iaun onec eguin yçanduçuen vere vician» 9at.,2,11. Erdaraz ‘trayéndonos a la memoria *lo que* por nosotros hizo’ 4,1,2.

*Ik.* ere 10at.,1,4s.; 12,10.

9) *cerengatic.* «Irurgarren gauza, *cerengatic* egon *bearbaytugu* atenciorequi... da *ceren.* ofrecicenbaytiogu» 30,2,1. Erdaraz ‘Lo tercero, *porque* para alcanzar...’ 23,2,1.

D. *Perpau* *lekuzkoak:* *Non*, *nondic* eta *nora* *nay* daude hemen. *Erlatibozko perpau* *setan* hitz egin dugu hauetaz. Eta *nondic*, bestalde, *Ondoriozko perpau* *setan* ipiniko dugu.

a) *non.* «Aldareac adicera ematendragu Caluarioco oyana, *non* yll *yçandubaycen* munduaren saluaçallea» 11at.,5,2.

b) *nondic* (-*n/bay-*). «eguin bearda contu... san Pedroc, eta san Pabloc predicacen digula, *nondic* atracenda» 45,2,14. Erdaraz ‘que nos predica san Pedro o san Pablo (Mezako Epistolan), *de donde* se saca’ 38,2,12.

«Hau onla escacenduenac ytzes, eta alabaya baldin badauil *nondic* becatu eguinenduen, joatendela ocasio ayetara» 93,2,9. Erdaraz ‘el que pide esto y por otra parte se mete en la ocasión, *donde* sabe que ha de pecar’ 84at.,1,7.

«guencen ciza(yz)quiola loturic ceuzquien burniac, (eta) ala gueldicence-la libre *nondic* eto(trri) baycizayon libertatea yzatera» 114,23. Erdaraz ‘se le quitauan las prisiones, y quedaua libre’ 108,1,3.

c) *nora* *nay.* *Ik.* *Erlatibozko perpau* *sak* b), 5).

E. *Perpau* *denborazkoak:* Hitz eta atzizki hauen bidez sortzen dira, hots, a) *ariqueta arteraño*; b) *bayno len*; c) *beçala*; d) *vitartean*; d) *erlatiboa*; f) *-ic*; g) *-la*; h) *-nean*; i) *noyz bay-*; k) *horos*, eta l) *-s guero*.

a) *ariqueta arteraño.* «echedaçue emen *ariqueta* emendic yçuli *arteraño*» 32at.,1,2s. ‘aguardadme aqui vn poco, *hasta que* buelua’ 25at.,1,3.

b) *bayno len.* «*erdibaynolen*» 57,14.

c) *beçala.* «Galcina labera elducen *beçala*» 111,7 y ‘y *llegando* al horno’ 103at.,9s;

«Aydec, eta (adis)quidec, yçusiçuten *bezala* erran(cioten) non dituçu lagunac» 113,22.

d) *vitartean.* «Meza ençuten cegon *vitartean*» 111,9s.

(e) *erlatiboa.* «berce honlaco obrac eguitendituen *egunean*» 108at.,1,4.)

f) *-ic.* «Ierusalena elduric onen lagunec Meza ençun, eta determinatu çuten particera» 112at.,2,4. *Ik.* «*criaturican*» 93at.,2,15.

g) *-la.* «*cioayela* bada..., eta *passacencela*» 111,2s.

h) *-nean*. «Emen Mezan daucagu presentean munduan *cebillenean*, ambat milagro eguinçuen» 8,2,2.

i) *noy bay-*. «ytz hoec cantatu cituen Ayngueruac... Iesu Christo gure launa jayocenean, *noy* jayci baycen cerutic Aynguerubat» 41at.,2,6s.

k) *horos*. «misterioau celebracenduçuen *horos* eguiçue nizas oroytzen çaratela» 10,2,7.

l) *-s guero*. «Iaun hau verau (Iesu Christo)... baytago hostia consagratuan, eta Calizan ardoa consagratus *guero*» 8at.,12.

«alaco maneras ece yztac consagraciocoac *erranes guero*, ezpayta an oguiric» 7at.,22.

F. *Perpau* moduzkoak: a) *ambat nola bay-*, b) *beçala*, c) *beçanuates*, d) *-ic*, e) *-ica*, f) *-la*, g) *-nean*, h) *nola bay-*, i) *nola bay- ala*, j) *non bay-*, eta k) *-ten* hitz eta atzizkiekin aurkitzen ditugu.

a) *ambat nola bay-*. «becatu mortaleac estorbacendu ezteçagun erdecì... *ambat* prouechu, *nola atrauayteçaquegu* estorbau guenbadeçagu» 27at.,2,7s.

b) *beçala*. «arrazioden *beçala*» 12, 14; xerranden *beçala*» 18at.,2,6.

c) *beçanuates*. «sustancias den *beçanuates*» 9,11. Ik. 17,2,6; 70,4 eta 22s.

d) *-ic*. «munduonetaco gauzac *vtçiric*, daucagun gueuren pensamentua Iaunonen baytan» 68at.,15.

e) *-ica*. «bada personabat baliaye merchede escacera vere Erregueri, eta jaunari jaquinica aren contrarioa, eta etsaya dela» 27at.,2,12s. Ik. 27at.,2,15s.

f) *-la*. «eta bere bestidurac edequi, eta billosiric ytcees oñetan, eta escuetan atrauesaturic, crueldade andiarequi, odola chirriaca *ceriola* goytitu-sutena» 9,6.

Atzizki hau erruz erabiltzen du *Beriyayn-ek*.

g) *-nean*. «ceren hura vera *denean*» 17,2,10. Erdaraz ‘*porque siendo el mismo sacrificio*’ 13at.,2,7. Badaiteke kausazkoa izatea, eta ez moduzkoa.

h) *nola bay-*. «*nola* baytio Concilio Tridentinoac» 9,12s.; «*nola* bereala erranen bayta» 107,1,7.

i) *nola bay- ala*. «*nola* leen ygorri yçandubayzuen... *a la* oray ygorcendraugu» 18,12/16.

j) *non bay-*. «bada hau ezta milagro chiquiago esposalletan eguinçuen bayno, *non* vras eguin yzandu bayçuen ardoa» 8at.,3. Erdaraz ‘*que no es menor milagro este... conuirtiendo el agua en vino*’ 2 at., 2, 14 s.

k) *-s*. «*ceyn* (becatuac) pagatu bearbaytugu munduonetan obra onac eta ondasunac eguines, edo purgatorian» 93,1,4.

*Ik.* ere *-as* atzizkia: 41,2,19s.

l) *-ten*. «*ceyn* ibildu baycen... eracusten guciey ceruco vide» 7,2,19.



G. *Perpauk konparatzaileak*: Berdintasun konparaketak egiteko, 1) *ayn nola*, 2) *ambat bay-*, eta 3) *ambat nola bay-* aurkitu ditugu; eta desberdintasun konparaketak sortzeko, 1) *-ago bayno*, 2) *-ago eces*, 3) *bayno -ago*, 4) *bayno len*, eta 5) *obe bayno*.

a) *Berdintasun konparaketak*

1) *ayn nola*. «gauza ciertoa da, *ayn* dela gurea gracias ematen çaygun gauza *nola guc gueuren trabajus erdestenduguna*» 72at.,2,12s.

2) *ambat bay-*. «ayn desseaturicacoa, *ayn* dembora lucean, *ambat* Patriarcac, Profetec, eta berce asco gendec, *ycandubaycen*» 42,21. Erdaraz ‘tan esperado y desseado... de tanta multitud de gente que huuo’ 35at.,15s. *Ik.* ere 109at.,3/5 (erdaraz 102,3,1s.).

3) *ambat nola bay-*. «ofrendabat... *ambat* agradacen çayona *nola bayta* Jesu Christoren gorpuça, eta odola» 77,2,11s.

*Ik.* ere «agradaçencayo *ambat nola* orduan» 17at.,14.

b) *Desberdintasun konparaketak*

1) *-ago bayno*. «eztugula deuserere *gutiago* an cen *bayno*» 8,1,8; «bada hau ezta milagro chiquiago esposalletan eguinçuen *bayno*» 8at.,2s.

*Ik.* ere 8at., 13ss. Hiru adibideok esaldi ezezkoetan daude.

2) *-ago eces*. «emendic da, ece Mezan ofrecicen den sacrificioa dela... *gueyago* agradacençayona comparacioric bague, *eces* berce sacrificio guciac» 16at.,1,1s.;

«ceñec (Iesu Christoc) *gueyago* honra ematen baytio *eces* berce gauça guciac» 18at.,2,7s.

3) *bayno -ago*. «ceren gauza ohoc *bayño* *gueyago* valio baytu ofrecicendion sacrificioac» 73,1.

*Ik.* ere 74at.,1,3; 106at.,3,10s.; 110,2,16. Denak esaldi baiezkotan.

4) *bayno len*. «eta andic etorricen berce lagunac Ierusalenetic *etorribayno len*» 114at.,1,11s.

Esaldi hau denborazkoa dela uste dugu, konparaketa baino gehiago.

5) *obe bayno*. «cerda gauza *oberic* joatea *baño* Mezara» 108at.,1,14s.

H. *Perpauk kausazkoak*: Bildu ditugun bideak a) *alas eta -nean*, b) *bada*, c) *bay-*, d) *ece*, e) *-gatic erlatiboari erantsitu*, f) *nola bay-*, g) *-t(z)eagatic*, h) *ceren*, i) *ceren bay-*, eta j) *cerengatic*. Gehien ageri direnak, *ceren*, *ceren bay-*, eta *bada* dira.

a) *alas eta -nean*. «oray ezta yçanen prouechu gutiagorequi..., *alas eta dutenean* horduan çuten virtutea vera» 7at.,4: ‘y no sera con menor prouecho nuestro..., pues tiene en si la misma virtud’ lat., 24;

«ceren ecin yorhere engañadezaquecu, *alas eta* çu çaradenean Maystrua eguiascoa» 57at.,17: ‘ni podeys engañaros, ni engañarnos, porque soys verdad infalible’ 50,20.

b) *bada*. «ala barcadrazquion becatuac, eta demon vere gracia onetaco *bada* medioric oberena da Meza ongui ençutea» 107,2,12.

*Ik.* ere 8at.,2; 18,5.

c) *bay-*. «batas ceren verac Mezan ofrecicenbaytu sacrificioa, berceas Meza erratenduenac ofrecicen baytu aren *gatic*» 106at.,3,15. *Ik.* ere «atratzen baytirade» 98,11: '*que se salen*' 96at.,9.

d) *ece*. «*bada* Iauna pagaçaytez Iesu Christoren meregimentuetan, *ece* da caudale...pagaceco» 75,5: '*pagaos pues Señor... que caudal ay*' 66,15.

e) *-gatic erlatiboarekin*. «Auda ene semea onericia ceyn agradacen bayçat *denagatic*» 17at.,23.

f) *nola bay-*. «*Nola* Christo gure Iaunac... eguinçituen ondasunac, eta obra guciac yçandu *bayciraden* aren Ayta etemoac ordenaturic..., eta... *nola* gauza ohec gucioc *baytauzqui* aren diuina Magestadeac oray ayn presentean» 16,3,1ss.

g) *-t(z)eagatic*, «obra guciac yçandu *bayciraden* Ayta eternoac ordenaturic, aren gogora *eguiteagatic*, eta aren amoreacatic» 16,3,6. *Ik.* ere 73at.,15ss.

h) *ceren*. «*ceren* horduan... izuli çuen oguiavere gorpuçean» 7at.,12s.;

«*ceren* oray here... Iesu Christoc milagro eguitenduela yçulcendu oguia vere gorpuçean» 8,2,4/7; *Ik.* 57at.,10-16; 58,2,2/5.

*Ceren* eta *ceren bay-* ugari erabiliak dira. Noiz eta zergatik bata edo bestea ez dakigu. Urrengo adibidean biak ageri dira elkarren ondoan.

i) *ceren bay*. «ez *ceren* ofrecibaytiteque sacrificioa sanduey *ceren* hau yolaco maneras ecin eguinditeque» 19,1,7ss. : '*no porque se pueda ofrecer el sacrificio a ninguno de los santos*' 15at.,1,6. *Ik.* 57at.,4s. eta 8.

j) *cerengatic*. «da ongui... emandrazquiogun Iaunoni gracia, eta ceruiçadeçagun *ceren gatic* gure amoreacatic passatuçuen, eta sufritu anbat dolore» 11at.,6,4.

*Ik.* 12,23 eta 31at.,1,1.

I. *Perpau* *ondoriozkoak*: Bildu ditugun bideak a) *ayn ece bay-*, b) *ayn ezpay-*, c) *ala*, d) *ala bada*, e) *alaco maneras ece ezpay-*, f) *ambat ece bay-*, g) *argatic*, h) *bada*, i) *bercela*, j) *emendic*, eta k) *nondic* dira.

*Nondic* *Perpau lekuzkoetan* ikusi genuen, eta baita *erlatibozkoetan* ere tratatu genuen pixkat. *Ondoriozko* izan litezkeen perpauetan ere ageri da, eta bi modutara ageri ere: 1) aditzaren aurrean *bay-* dagoela, eta 2) ezer gabe.

a) *ayn ece bay-*. «da Iaunonec gure gana daucan amoria *ayn* andia *ece* oray necessario yçandubaliz...eguien *bayçuen* guregatic» 12,4ss.;

«eta ciacen odehyac cargatus eguiten cituela ortosas *ayn* andiac, eta oñazturac, *ece baycirudien* munduac ondatu bearçuela» 112,7s.

b) *ayn ezpay-*. «Ezta yçandu munduan eta ezta generic *ayn* barbaroric, eta adimentu gutitacoric, *ezpaytute* ofrecicen sacrificioac» 16at.,3,2s.

c) *ala*. «*eta ala* aprouecha gaytecnen Iaunonec... meregitu cisquigun ondasunes» 10,1,4. *Ik.* ere 7at.,2 eta 17; 12,18; etab.

Beti *eta ala* ageri da, uste dugunez *ondoriozko* esanai bat daramala, edo eramam lezakeela.

d) *ala bada*. «*ala bada* Meza ençutenduenac beardu vere baytan consideratu, eta pensatu» 72at.,2,14s.: ‘Y *assi* el que...’ 64,2,12.

e) *alaco maneras ece ezpay-*. «*alaco maneras ece* ytzac consagraciocoac erranes guero, ezpayta an oguiric» 7at.,21ss.;

«*alaco maneras ece* nic pensadezadatn» 59at.,8s.;

«*alaco maneras, ece* nic ez meregia gatic dudan parte» 98,3ss.

Azkeneko bi adibide hauetan, esaldi baiezkooak ditugu, eta biak subjunkti-boan daude. Ez da *bay-* ageri.

f) *ambat ece bay-*. «becatu mortaleac eguin cituen gaystoac (Ayngue-ruac), *ambat ece* gueros baytirade demonioac, ifernuan daudenac» 93at.,2,17.

g) *argatic*. «*argatic* otoytz eguitendrahuet Virgina Andre dona Mariari» 40,1,11: «*por tanto* ruego a la bienauenturada Virgen María...» 33at.,1,14.

h) *bada*. «*bada* Iauna pagaçaytez» 75,4: ‘pagaos *pues* Señor’ 66,14.

«*ciacela bada* biac junto videas: assicen dembora nastecacen» 112,4.

i) *bercela*. «Baya obequiago erdesteco conuenida oracioau, errandedin adicenduen languagean, *bercela* eztu jaquinen cer escacenduen» 91,2,6.

*Ik.* 6at.,2,5; 7,1,1,; 26,17. Denak *ezezkoak* dira, beraz *bercela ez*.

j) *emendic*. «*emendic* da, ece Mezan ofrecicen den sacrificioa dela auentajatuago» 16,3,14: ‘*de aqui* es, que’ 13,1,4;

«*Emendic* atracenda» 110,1,5: ‘*De lo dicho* se saca’ 102,2,6.

k) *nondic*. «yçulcenda oguiua Iesu Christoren gorpucean, eta ardoa aren odolean *nondic* dator erratera S. Ioan Chrisostomo» 8,1,4: ‘*de donde* viene à dezir san Iuan Chrisostomo’ 2,17;

«eguin beardu contu... san Pabloc predicacen digula, *nondic* atracenda nola Epistola bearden ençun» 45,2,14: ‘*de donde* se saca’ 38,2,12;

«guencen ciza(yz) quiola loturic ceuzquien burniac, (eta) ala gueldicence-la libre *nondic* eto(rii) *baycizayon* libertatea yzatera» 114,23: ‘se le quitaban las prisiones, y quedaua libre’ 106at.,1,3.

Ondoriozko perpausak ote, batez ere azkenekoa?

J. *Perpaus baldintzazkoak*: Hemen 1) *ba-*, 2) *baldin ba-*, eta 3) *bezala* ageri dira.

Lehenbizi, eta a) deitzen dugun sailean, hitz horien bitartez egindako perpausak ipintzen ditugu; gero, eta b) deitzen dugun sailean, esanahiari begiratzen diogula, beste talde bat.

a) *Ba-*, *baldin ba-*, eta *bezala* partikulekiko adibideak.

1) *ba-*. «ceren ni ezpanoaye neure Ayta gana, ezta etorrico Espiritu sandua çuen gana, baya ni *banoaye*, nic igorrico drauçuet» 71at.,2,12ss.

2) *baldin ba-*. «beardu guendu vereganic becatu mortalea *baldin* artan badago» 28,1,2s.;

«emendic atracenda nola eguitenduten gayzqui vstedutenec galcendutela veren honratic *valdin* mendeca *ezpadaytez*» 54at.,19.

3) *bezala*. «medioric oberena da...otoytz eguin emandrazquigun Iesu Christoren amoreacatic ondiraden *bezala* bienaumenturanca erdesteco» 109,3,7: ‘el mejor medio...es... suplicarle por medio de Iesu Christo nos las de, *en tanto que* no sean de estoruo, sino que nos aprouechen para la vida eterna’ 102,2,6.

b) Perpaus baldintzazkoak esanahiaren arabera.

1) «ceren ni ezpanoaye..., ezta etorrico..., baya ni banoaye, nic igorrico drauçuet» 17at., 12ss.;

«galcendutela...mendeca *ezpadaytez*» 54at., 19;

«*naybaduçu*... atra, eta... *barcadrazquicun*,...çoas» 107at.,14;

«nola atrauayteçaquegu... guen *badeçagu*» 27 at.,2,9.

2) «nola erdecico bayquinducen...*baldin* aurquendu baguina» 17at.,9s.; ‘ha de ser de tanta eficacia...como si nos *hallaramos*’ 14,4ss.;

«*baliaye*... erranlaçoquete» 27at.,2,11;

«nola atracobayluquete *baliaquite*» 125at.,19;

«nola egonen bayllizate adicen *balu*» 91,2,12;

«*ezpalidi* atra...ofrecituconinza» 70at.,1,7ss.: ‘si no *redundara*... me ofreciera’ 62,2/62at., 1;

«yçanen dugula... falta *ezpatedi*» 43,6: ‘sino *faltare*’ 36,17.

3) «pensatu cer eguinnuen, *baldin* *aurquendubaniça*» 27,1: ‘pensar lo que hiziera entonces, *hallandose*’ 20at.,18.

K. *Perpaus kontzesiboak*: Hauek osatzeko, a) *ezpada here*, b) *here*, eta c) *-gatic* erabiltzen dira.

a) *ezpada here*. «beardu... graciac eman, *ezpada* arte gutibates baycic *here*» 98at.,2,3;

«hau eguin badedi... arte gutibates baycic *ezpadahere*» 126at.,11.

b) *here*. «adicera ematen çaygu ece Euangelioan eracusten çaygun dotrina beardugula agoas confessatu conuenidenean bearbada onengatic gogotic bicia emanhere» 55,2,6: ‘la hemos de confessar de palabra, quando fuere necessario, *hasta dar* la vida por ella’ 48,1,22.

c) *-gatic* «Ezta yçandu munduan eta ezta genderic ayn barbaroric... *ezpaytute* ofrecicen sacrificioac, vere laungoycozat dauzquiteney falsoac yçanagatic» 16at.,3,5: ‘*aunque* falso’ 13,3,3.

*Ik.* ere 17at.,2 eta 77,1,4.

L. *Perpaus zedezkoak*: Orain a) *subjunktiboa*, b) *-teagatic*, c) *-teco*, d) *-tera*, eta e) *ceren ta subjunktiboa* aurkitzen ditugu. Azkeneko hau behin bakarrik aurkitu dugu.

a) *subjunktiboa*. «memoriara ecarcendigula...oroytgaytecn harças, eta emandrazquiogun graciac, eta alauadezagun eta ceruıçatu, eta ala apruecha gaytecn» 10,12ss.;

«ceren nola leen ygorri yçandubayzuen... *eguincedin* guiçon» 18,14.

b) *-teagatic*. «onetaco gueyago gu *obligazeagatic*» 10,2,10s.: ‘y para mas *obligarnos*’ 4,2,9/4at., 1,1.;

«ni ofrecicen naiz çuri contentu *emateagatic*» 70at.,1,6.

c) *-teco*. «Meza ongui *ençuteco*... beardu jaquin cerden» 6at.,2,7; «eta hau nola den obequiago *adiceco* bearda jaquin» 7,2,5.

d) *-tera*. «onetaco arcenduela Sacerdotea aren ministroa bezala, aren partes, eta aren ycenean atradedin Meza *erratera*» 10,2,18.

e) *ceren ta subjunktiboa*. «egunoros ofrecicendiogula sacrificioau *ceren emandaquigun*... meregitu cisquigun ondasunac, eta aren medios *barcadrazquigun* eguitenditugun becatuac» 18at.,1,2/5: ‘para que... se nos aplique..., para que se nos perdonen’ 15,1,2.

Bigarren partean ez da *ceren* partikula errepikatzen.

## BIGARREN ZATIA

### Beriain eta Lizarraga

Hemen ipini ditugun partikulak eta beste, erkatuko ditugu Elkanoko Lizarragaren liburu batean aurkitutakoekin. Liburu hau *Ongui iltzen laguntze-có Itzgaiac* da, 1807. urtean prestatua, eta EUSKARAREN LEKUKOAK izeneko bilduman agertu dena. (*Ik.* bilduma hori, 10.alea).

#### Beriain

#### Lizarraga

##### I. *Perpausak lokarririk gabe*

Hemen, jakina, ez dago diferentziarik.

##### II. *Perpaus koordinatuak*

###### A. *Perpaus kopulatiboak*

Beriainek *eta* erabiltzen du.

Lizarragak, *eta*, *ta*, *baitare*, *ez*, *eztare*.

*B. Perpaus adbertsatiboak*

Beriainek: *aytcetic, baya, bayeta, baycic, bercela, ezpada, alabaya.*

Lizarragak: *baña, baicic, ezpada, ala ere, bai, ezi, ta.*

*C. Perpaus disjunktiboak*

Beriainek *edo* erabiltzen.

Lizarragak ere *edo*.

*D. Perpaus banatzaileak*

Beriain: *ala nola, bat berce, ez eta ez.*

Lizarraga: *dela dela, edo edo, ya-ya, eztare, an emen, bat berce.*

**III. Perpaus menpekoak**

*A. Perpaus subjektiboak*

Beriain: *aditz izena, ece, -la, subjunktiboa, zeharkako galdera.*

Lizarraga: *aditz izena, ezi, erlatiboa, -la, partizipioa, subjunktiboa, zeharkako galdera.*

*B. Perpaus objektiboak*

Beriain: *aditz izena, erlatiboa, ece, -la, partizipioa, subjunktiboa, -ten eta zeharkako galdera.*

Lizarraga: *aditz izena, ezi, erlatiboa, -la, partizipioa, subjunktiboa, zeharkako galdera.*

*C. Perpaus erlatiboak*

Beriain: *-n, bay-, -icaco, non bay-nondic, nora nay, ceyn, ceyn bay-, cer, cerengatic.*

Lizarraga: *-n, bai-, non, nondic, nor, nora, cein, cer, edocein.*

*D. Perpaus lekuzkoak*

Beriain: *non, nondic, nora nay.*

Lizarraga: *non, nondic, nora.*

*E. Perpaus denborazkoak*

Beriain: *ariqueta arteraño, bayno len, bezala, vitartean, erlatiboa, -ic, -la, -nean, noyz bay-, non bay-, horos, -s guero.*

Lizarraga: *artaño, arteo, asgueros, baño, bitartean, len, -ic, -la-(r)ic, -nean, noiz, noiznai, ondoan, orduco, -ten, -teracoan.*

*F. Perpaus moduzkoak*

Beriain: *ambat nola bay-, bezala, bezanbates, -ic, -ica, -la, -nean, nola bay-, nola bay-ala, non bay-, ten.*

Lizarraga: *-ac, ala nola, ariora, becala, guisan, -ic, -la, nola, nola nai, -s, -ten.*

G. *Perpaus konparatzaileak*

Beriain: *ayn nola, ambat bay-, ambat nola bay-, eta -ago bayno, -ago eces, bayno -ago, bayno len, obe bayno.*

Lizarraga: *adiña, ain, ainberce, becala, bezain, diña, nola, eta baño -ago, -ago ezi.*

H. *Perpaus kausazkoak*

Beriain: *alas eta -nean, bada, bay-, ece, -gatic erlatiboarekin, nola bay-, teagatic, ceren, ceren bay-, cerengatic.*

Lizarraga: *-as gueros, bada, bai-, ezi, -la, -laic, nola, ceren, cerengatic, cergatic.*

I. *Perpaus ondoriozkoak*

Beriain: *ayn ece bay-, ayn ezpay-, ala, ala bada, alaco maneras ece ezpay-, ambat ece bay-, argatic, bada, bercela, emendic, nondic.*

Lizarraga: *ain ezi, ala, ala bada, bada, beras, orgatic.*

J. *Perpaus baldintzazkoak*

Beriain: *ba-, baldin ba-, bezala.*

Lizarraga: *ba-, barinba-, baldin ba-, baldin barinba, artaño, -laric, nola, nonta, ezperen (?).*

K. *Perpaus kontzesiboak*

Beriain: *ezpada here, here, -gatic.*

Lizarraga: *naiz, ezpa- ere, datorrena datorrela, dena dela.*

L. *Perpaus xedezkoak*

Beriain: *subjunktiboa, -teagatic, -teco, -tera, ceren ta subjunktiboa.*

Lizarraga: *-gatic izenari ta subjunktiboari erantsirik, subjunktiboa, -teco, -tecas, -tecotan, -tera.*

**BIBLIOGRAFIA**

IRIGARAY, ANGEL, «El tratado de oír misa euskérico, de Beriayn, abad de Uterga», *Fontes Linguae vasconvm*, I, 1969, 291-294.

«Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional», *IV Symposium de Prehistoria Peninsular* bajo la dirección del Dr. D. Juan Maluquer de Motes, Pamplona, 1966, 261-269.

«¿Se trata de una Doctrina de Sancho el Elso?», *Príncipe de Viana*, XXIX, 1963, 249-253.

LEGARDA, ANSELMO DE, «El licenciado don Juan de Beriain, abad de Uterga y escritor vasco», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, XIV, 1958, 17-37.

OROZ ARIZCUREN, FRANCISCO, J., “¿Dónde nació Juan de Beriain, abad de Uterga”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca* “Julio de Urquijo”, XV, 1981, 157-164.